



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-02-27

BILERA ZENBAKIA: 37

ORDUA ETA LEKUA: 18:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Maider, Marijo, Jabi eta Erkuden.

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azkeneko aktaren onarpena.
2. Etxeko lanak.
3. Otsailak 4ko ekimenaren balorazioa (errefuxiatuak)
4. Otsailak 14ko hitzaldiaren balorazioa (Kiropraktikoa)
5. Filmen urteko egitaraua lotu. Otsailak 21eko dokumentala lotu
6. Martxoko desfibriladore tailerra lotu
7. Urteko memoria tailerrak antolatu, bolondresekin.
8. Martxoak 8ko elkarretaratzea, pankarta... eta antzerkia bai ala ez.

### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

### 2. ETXEKO LANAK

- HARRERA EGUNEKO LIBURUXKA frantserera pasa da herritar bati esker. Orain liburuxkara egokitzea falta da.
- KZ GUNEA:
  - 1- Alde batetik inpresoraren gaia dugu mahai gainean..... KZ gunekoekin hitzegin ostean, hauek dira aukerak: beraien impresora erabiltzea baina papera eta tintak udalaren kargu.
  - 2- Bestalde erabileraren inguruko arazoak daude. Zenbait ohar jarri behar dira KZ GUNEKO txokoa, erabilera egokia izan dezan.
- ETXEBIZITZA SOZIALEN EGOERA.

Momentu honetan udaletxeak 4 etxebizitza sozial ditu, guztiak okupatuta. Hauxen da egoera:

  - 1- Azken luzapena 2020ko maiatzak 31a arte onartu zaio
  - 2- 2017ko azaroak 14ean amaitzen zaio ez dauka luzapen eskubiderik
  - 3- 2018ko urtarrilak 31a bitarte dauka ez dauka berritzeko eskubiderik
  - 4- Familia bizi den bitartean etxebizitza eskubidea dute.
- BERDINTASUN GAIAREN INGURUKO LANKETA. Arduradunei zenbait ideia pasa zaizkie; 2018rako egutegia herriko elkarteekin kolaboratuz; gazteekin egiteko tailerrak;

### 3. OTSAILAK 4KO EKIMENAREN BALORAZIOA (ERREFUXIATUAK)

Orokorrean ekimenaren antolaketa ondo atera zen. Jendearen parte hartzea ere handia izan zen: 50



bat pertonek parte hartu genuen. Eguna edo urtaroarekin ordea ez gendun asmatu. Egun bertan ondo itxatxita geratu baziren ere astean zehar egindako euri eta haizearekin mural gehienak desagertu ziren. Babesean daudenak geratu dira ondo (eskola, plaza eta arkupeetakoa).

Martxoak 10ean, desagertutako mural baten kopia aterako dugu eta txukun txukun jarriz, kola berezi eta grapekin proba bat egingo dugu. Oraingoan deialdia gure artean geratuko da.

#### 4. OTSAILAK 14KO HITZALDIAREN BALORAZIOA (KIROPRAKTIKOA)

Hitzaldi interesgarria, 25-30 herritarrek parte hartu zuten. Gehienak jubilatua. Horrelako hitzaldiak Tipi Taparen ondoren jartzeak eragina izaten du.

#### 5. FILMEN URTEKO EGITARAUA LOTU. OTSAILAK 21EKO DOKUMENTALA LOTU

Otsailak 21ean Jabi Julioren WAIT, JUST WAIT dokumentala botako dugu. Aurrera begira hauek dira aukerak:

Martxoak 30	* YO TAMBIÉN (105 minutu) * MOCHILA 21
Apirilak 27	LA SONRISA VERDADERA (82 minutu)
Maiatzak 25	* AZUL Y NO TAN ROSA (114 minutu) * LOVE IS STRANGE * BAD EDUCATION
Ekainak 29	* LA SEXTAKO DOKUMENTALA * TARAJAL (galdetu Juliori non lortu dezakegun) * REFUGIADOS CAMINO A NINGUNA PARTE * NACIDO EN SIRIA
Uztaila	* Kanpoan emanaldia, gazteek aukeratutako filma, Ainarak galdetuko die. * AMY
Irailak 28	YO NO SOY DE AQUÍ (26 minutu) ondoren hitzaldi bat eman liteke
Urriak 26	AMAREN ESKUAK (90 minutu)
Azaroak 30	PLANES PARA MAÑANA (96 minutu)

Dokumental edo Film-ak aukeratutakoan liburuxka aterako da herritarren artean banatzeko.

#### 6. MARTXOKO DESFIBRILADORE TAILERRA LOTU

Hurrengo desfibriladore ikastaroa martxoak 21 eta 22 egingo da. Ikastaroa emango duen taldea ere lotuta dago. Izena emateko zerrenda Kaxintan eta Lurdesen jarri dira. Joan den urtean bezela, bi egunetan 18:00tatik 20:00tara izango dira ikastaroak.

#### 7. URTEKO MEMORIA TAILERRAK ANTOLATU, BOLONDRESEKIN

<b>OTSAILAK 28</b>	Rut	<b>MAIATZAK 30</b>	Jaione ?	<b>URRIAK 31</b>	Manu
<b>MARTXOAK 28</b>	Manu	<b>EKAINAK 27</b>	Mirari	<b>AZAROAK 28</b>	Jaione ?
<b>APIRILAK 25</b>	Ander	<b>IRAILAK 26</b>	Mirari	<b>ABENDUAK 19</b>	Erkuden

#### 8. MARTXOAK 8KO ELKARRETARATZEA, PANKARTA... ETA ANTZERKIA BAI ALA EZ.

- 19:00 Urtero bezela elkarretaratzea egingo da plazan. Ondoren poteoa.
- 21:00 Arbel Aitz elkartearen afaria.
- Martxoak 3an, emakume langilearen nazioarteko egunaren arira, plazan mural bat margotzea



proposatu da.

- Martxoaren 5 goizean elkarretaratze egunerako pankarta egiteko geratu gara.
- Azkenik, martxoak 17an BI ERO DISKOTEKAN antzerkia izango da, arratsaldeko 19:30etan eskolako aterpean. Jendeari gogorarazteko afariko egunean eskuorri bana banatuko zaie

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
<p>Medikuarekin bildu eta beharraren arabera urteko hitzaldiak antolatu.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ondo lo egiteko tailerra</li> <li>- Drogomenpekotasuna eta gazteria</li> <li>- Sexu harremanak</li> <li>- Bizi testamentua</li> <li>- Organo eta odol emaileak</li> <li>- Sendiak programaren barruan dagoen zaintzaileei bideratutako tailerrak</li> <li>- ...</li> </ul>	MARTXOAK 27	Rut
Dokumental – Filmak aukeratu	Lehen bait lehen	Marijo eta Maider
Dokumental - film liburuxka osatu	Lehen bait lehen	Erkuden
KZ GUNEA inpresora martxan jarri eta erabilera oharrak ere ondo adierazita utzi.	Lehen bait lehen	Erkuden
Harrera planeko liburuxka eguneratu eta frantsesezko bertsioa egokitu.	Lehen bait lehen	Erkuden
Berdintasun gaiaren inguruko gaiak aukeratu eta lanketak antolatu	URTEAN ZEHAR	Marijo eta Maider
<b>ERRONKA NAGUSIA BURUTU: batzordetik kanpo, ekintzen antolaketetan lagunduko digun bolondresak lortu eta beraien konpromezua lortzea izango da.</b>	<b>URTEAN ZEHAR</b>	<b>Denon artean</b>
HURRENGO BILERA		
<p>Hurrengo bilera, 2017ko Martxoaren 27-an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 7tan Udaletxean.</p> <p>Gai Ordena:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Aurreko aktaren onarpena</li> <li>2. Etxeko lanen errepassoa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Dokumentalak</li> <li>○ KZ gunea</li> <li>○ Harrera liburuxka</li> <li>○ Berdintasun lanketa</li> </ul> </li> <li>3. Medikuarekin bildu eta urteko hitzaldien antolaketa</li> </ol>		